

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuaren zirriborroarekin hasteko, bezeroak ondo identifikatzearekin batera, oso garrantzitsua izango zaigu negozio-ereduak funtziona dezan ahalbideratu dezaketen hornitzaile-bezeroen kateak identifikatzea.

Alde batetik, funtsezko elkarten artean udaletxeak izango ditugu, izan ere, beraiek izango baitira gure bezero printzipal eta ahal den neurrian bakarrak. Hau da, gure zerbitzua diru publikotik finantzatzea dugu helburu, azken kontsumitzailearentzat doakoa delarik.

Hala ere, dena ez da dirua, eta beraz beste aliantza batzuk ezinbestekoak ikusten ditugu gure ideia aurrera atera ahal izateko. Durangaldeko herri guztietan dauden plataforma eta taldeak izango lirateke hauek; herrigintzan, haur, familia, euskara, heziketa, aisialdiarekin... zerikusia duen edozein elkarte. Izan ere, hauei esker, baliabideak gehitzeaz gain, gure proiektua gehiago zabaltzeko aukera ere emango ligukete.

Beraz, Durangaldeko talde posible batzuk hauek lirateke:

HERRIA	TALDEAREN IZENA	DESKRIBAPENA
Zornotza	Altzoan hazkuntza taldea	Ardura multzo eta hezkuntza eredu komun batek batzen dituen taldea da eta "esperientziak elkarbanatuz elkar elikatzeko gunea" litzateke.
Durango	Berbaro elkarte	Euskaltzalez osatutako elkarte da Berbaro. Sentsibiltate anitzeko jenteak osatzen du elkarte eta bakoitzak bere neurrian laguntzen du Durango euskalduntzeko ekinean.

Atxondo	Marixurrike	Herritik eta herriarentzat sortutako proiektu bezala definitzen dute beraien burua.
Elorrio	Txatxilipurdi	Txatxilipurdi elkarteak agente ezberdinekin egiten du lan elkarlanean (administrazio, enpresa, ikastetxe etab.) baina batez ere herrigintzarekin ditu eraikiak zubiak.

Elkarte guzti hauek aliatu bezala ikusten ditugu, bakoitzak duenarekin gehiago lortu baitaiteke beti. Esaerak dioen bezala; “ ***bakarrik arinago goaz, baina batera baldin bagoaz urrutirago joan gaitzke***”. Ezin dugu ahaztu gure helburua haur eta familien beharrak asetu eta beraien ongizatea lortzea dela, beraz, denon laguntza ezinbestekoa izango zaigu.

Azkenik, proiektuko bost kideak bazkide izango gara eta bakoitzak izango duen parte hartzea berdina izango da. Nahiz eta jakin bakoitzaren ahalmen ekonomikoa desberdina dela, denok berdina jarri eta parte hartze berdina izanez gero, arazo asko ekiditu ditzakegula uste dugu. Hau da, guztiok ehuneko bera izango genuke eta beraz, erabakiak hartzeko ere berdinak izango gara, baita lan egiterako orduan ere. Jarriko dugun kantitateari dagokionez, aho betez 1.500 euro jartzea erabaki dugu. Ondorioz, guztion ekarpenekin 7.500 euro izango genituzke kapital sozial gisara.